


---

## GIZARTEA

---

### GIZA ZERTZELADATXOAK



Julian Barandiaran Kortazar nor zen gutxik jakingo dute Markina aldean. A. Emilianoren izen-deiturak dira, baina hemen izen erlijiosoaz zen ezagun, A. Emiliano izenez. Haren biografiaz beste aldera jo nahi genuke lerro hauetan, giza zertzeladatxoak biltzera, haren alde umoretsu eta gizatiarrari begiratzera, honelakoetan ohi dugunez.

Geuretik eta lehengo zaharren esanetatik jasota oroimenean ditugunak bistara atereaz jardungo dugu.

Karmeldar gazteen formatzaile eta hezitzaile izan genuen ia bizitza osoan. Haiekin zituen bere harreman beharrezko eta egunerokoak. Hauek lagun zituela, baratzeko bazterrak apaintzeari ekin zion. Horrela, barazkiak hartzeko erabiltzen ez ziren hainbat arlo, bertan behera utzita eta sasiz josita omen zeuden hura etorri aurretik. Hauetako bi toki, lorategi dotore bihurturik zeuzkan: harlanduz egindako putzu biribila eraiki zuen gaur egun posta-zerbitzua dagoen ingurutik hurbil komenturantz. Putzuan mota askotako arrainak, erdi aldean har-kaitz erako barrunbea eta iturria, bertatik ur-txirrista etengabea zeriola. Inguruan porlanez eta zurez eginiko eserlekuak; pixka bat atzerago, palmondoak, hurritzak eta zume negartiak; eta gainerako arloan hainbat motatako loreak, forma geometrikoak zituzten ezpelezko hesi politen barruan. Bigarren lorategia, karmeldarren kanposantua zegoen inguruan moldatu zuen. Lehenik, eraikina bera aldatu zuen, bere kanpai eta guzti, ermita-itxura emanik. Haren atzealdean bi zipres lerdan sartu zituen, txorien jostaleku zirenak. Pixka bat atzerago, baratzeko hormaren kantoian, banbu kanaberak; ermitaren ezkerraldera, hiru bat zuhaitz hostozabal; aurre aldean, berriz, loreak, putzu ondoan bezala, ezpelezko hesi barruan. Hortik hurbil, horman koba antzera egokituriko lekutxoan, Lourdesko Amaren alabastrozko irudia.

Atari ondoko patioa ere, hura etorri aurretik, teila-puska eta abarrez zatarturiko lekua omen zen. Gerora, beti ikusi izan dugu lorategi txukun bihurturik, erdi-erdian palmondo lerdana zuela. Lur saila harri-koskorrez estalitako iraganbidez bereizita eta, baratzean bezala, forma geometrikoz eginiko ezpelezko hesietako bakoitzaren barruan, erdi-erdian, zuhaitz txiki bat (japoniar aranondoa) eta loreak. Atari ondotik harrizko eskailera bat jaisten da patio honetara eta, beste aldean, lehenago komunitatea bizi zen klaustrora igotzeko beste eskailera bat.



Honek behealdean uzten duen hutsunean, harkaitz artean aterata balego bezala, iturri bat, ura txirristaka gorantz zeriona. Honen gainean, horman, koba antzeko barrunbe batean kokaturik, Lourdesko Amaren beste iruditxo bat, baratzekoa baino txikiagoa...

Jolasaldietan ikasleok hiruak ibili ohi ginen. Hizketarako gai modurik ez genuen izaten; gai akademiko eta komunitateko gauzatxoez at, ia ezer ere ez. Gazteok geure artean konpontzen eta asaskatzen ginen, gai arinak erabiliz nahiz edozer-taz hitz eginez. Behintzat ez ginen isilik egoten. Hiruko horiek txandaka aldatzen ziren, guztiak guztiekin ibili ahal izateko. A. Emiliano bera ere egokitzen zitzaion hirukoan izaten zen. Ikasleak, orduan, pixka bat lotsatiago, jakina! Hari errespetua genion eta, bestalde, bera nahiko isila zen eta isilune luzeak izan behar noizbehinka. Barruak ez zigun uzten haren aurrean berriketa funsgabeetan aritzen. Erdaldunak ere baziren gure artean eta gaztelaniaz hitz egiten genuen. Astean behin-edo, euskaraz saiatzeko esaten zigun. Halakoetan euskaldun eta euskaltzale ginenok pozik. Gogoan dut, behin nola ekin zion gerra osteko gauzak eta barruko samarrak kontatzen; fraide Espainia zaleengandik jasan behar izan zituztenak kontatu zizkigun eta gu bero-bero jartzen ginen haien aurka eta gutarren alde... Euskaraz egiteak berez-berez eragiten ziola zirudien konfiantza handiagoz hitz egitera.

Erregen gauean errege egitea, benetan hartu ohi zuen. Horretarako, beren-beregi joan ohi zen Bilbora, bere ardurapeko gazteentzat opariak erostera. Opariak, elkarren arteko jelsokortasuna ez pizteko-edo, berdintsuak izaten ziren guztientzat. Opari horiekin batera, letrazko oparia uzten zuen zapata barruan. Gaztelaniaz idatzitako ziri-bertsoa. Hau guztiz berezia zen eta bakoitzaren neurri-neurrira egina. Ez zen benetako bertsoa, konposizio errimatua baizik. Testuaren tamaina ere, luzeago nahiz laburrago izan zitekeen; errima bera errepikatzen zen, lerro bakoitza zortzi silabakoa izanik. "Coplas de arte

menor" deitu ohi zien berak. Hauetako asko gordetzen dira artxihoan haren karpetetan; politenetakoak direlakoan, bi hauek hautatu ditugu. Ofiziotzat sakristautza zuen bati egina da lehenbizikoa, eta praka-barrenak abituaren azpitik agertzen zitzaizkion bati egina bigarrena. Erregeak, bakoitzari zegozkion aholkuak emateko nahiz zenbait akats zuzentzeko, baliatzen zuen gauerdiko bisitatxoa...:

*Hermano Martín María,  
A su cargo se confía  
Cuanto aquí hay de más valía.  
Oratorio y Sacristía!...  
La Sagrada Eucaristía!...  
Tenga en cuenta noche y día.*


.....  
*Según he hecho observaciones  
Por los pueblos y naciones  
Los frailes de otras regiones  
No llevan los pantalones  
Cayendo hasta los talones.  
Otro año en mis zurriones  
Traeré en vez de turriones  
Un montón de cinturones  
Con un ciento botones  
De los de atar los calzones.*

Nagusien urtebetetze egunetarako bertso berriak jartzen zituena eta bazkalondoan kantatu, omenduak zoriontzeko. Bai gaztelaniaz bere "coplas de arte menor" izenekoetan, eta bai euskarazko bertso berrietan erakusten zuenez, bertsogintza ongi menderatzen zuen. Grazia handia zuen eta aparteko erraztasuna nahi zuena bertso jarrietan adierazteko. Horratik, behin, familia arteko jairen bateko bazkalondoan, paperetik bertso berriak kantatzeari ekin zion. Aurrez ongi pentsatuak

eta prestatuak. Gogotik txalotu omen zuten gehienek bertso-jartzaillea... Baina ez guztiek. Bere aldamenean zuen aguretxo batek honela esan omen zion: "Horrek holan ez dau balio; bertsoak bota egin behar dira, bota...!"

Ikasleekin egin ohi zuen beste ekintzetako bat, Jesus Haurraren irudi txiki-txiki bat, Pragako Jesus Haurrarena, ezkutuatu eta bilatzea zen. Urteroko ohitura zen hau, Jesusen Izen Santuaren edo Familia Santuaren jain egin ohi zena, Jesus galdu eta Jerusalemgo tenpluan aurkitu zutenekoa oroituz. Gogoan dut, lekua mugatu zigun arren, luzaro jardun genuela aurkitu ezinik eta, azkenez, hau idazten duenak aurkitu zuela kaperako aldare barreneko moldura batean poliki kokatuta. Benetako altxorra aurkitu banu ere ez halako pozik... Gero, saritzat, turroi-barra bat eta berak idatziriko Andre Mariren bi liburuak eman zizkidan.

Debozio handiko gizona zen, here ardurapeko gazteengan debozio horiek bultzatzen saiatzen zena. Goian ikusi dugunez, Jesus Haurrarenaganako maitasuna ageri-agerikoa zuen.



Ikastetxeko kapera aurretxoan bazen San Joseren irudi polit bat. Gauez, azken otoitzak kaperan egin ondoren, A. Emiliano eta ikasleak geletara joateko irteten zirenean, hark geldiune luzea egin ohi zuen gauero San Joseren iruditxoaren aurrean; ikasleetako askok ere, hura imitatuz, beste horrenbeste egin ohi genuen. Irudi hark fama handia zuen; eskaturikoa ia beti lortzen zuen fama. Batez ere bokazio berriak erakartzeko bertutea omen zuen; bokazioak urri zirenean edota eza sumatzen zenean, zigorturik-edo, hormara begira jartzen zuten eta laster hasten omen ziren gazteak komentura etortzen. Orain dela hogeit bat urte ostu egin ziguten iruditxoa eta harrezkero bokazioak urrituz joan dira...

Andre Maria bere debozio handien artean zuen, euskaraz idatzi zituen liburuek erakusten dutenez. Lourdesko Ama bereziki maite zuela dirudi, haren irudiek in apaindu baitzituen baratzeko eta patioko lorategiak.

Musikari ona eta musika gregorianoan batez ere maisu aparta zen. Meza eman ondoren, Jaunari eskerrak emateko, koruko organora joan ohi zen eta debozioz eta gozo-gozo jo ohi zuen musika gregorianoa nahiz bestelako eliz musika.

Adiskide min-minak zituen herrian. Beharbada, ez asko, baina bai onak. Txistulariak, musikariak, kantariak maite zituen eta hauek ere bai bera. Familia batzuetan etxe-etxeko zen, esaterako, Ansolatarren familietan eta Aginaga-Gezuraga familian. Hauek ere musika zaleak ziren eta seme batzuk karmeldar izateko asmotan ari ziren. Agustin Goitti eta honen emazte Emeteriren etxean sarrera handia zuen eta, haren paperetan ageri denez, sarri aipatzen ditu.

Joan Jose Arrizabalaga Amoroto, Agustin Ugartetxea "Goitti", beste batzuen artean, A. Emilianoaren koruko ahots baxuak ziren. Ongi dakit hauekin harreman estua izan zuena, baina Joan Jose Arrizabalagak berak *Markiña Zarra Kontu kontari* liburuan dakarren pasadizo polit bat agertu nahi nuke hemen.

Joan Jose Arrizabalaga honek ikaragarritzko grazia du Markinako jazoriko eta pasadizoak kontatzen. Dena dela, berak ahoz hitz egiten den bezala idazten du. Horregatik, neure erara adieraziko dut A. Emilianorekin izandako pasadizoa, haren zenbait esaldi tartekaturik. Umore ona eta ezin agertu; lotsor-lotsorra omen zen. Ahots baxu sakona, trumoia bezalakoa. *Tremen fatusok eta abar egindekue nintzen. (...) Karmeldarren eleizan be makiña bat arrantza... "Ezeizu olako zaparradarik ata, dipuntue jaikiko da-ta"* esaten omen zioten koruko lagunek. Halako batean, Donostiako *Diario Vasco* egunkarian lehia-keta baterako deia egiten zuen iragarki bat irakurri zuen. "Cantante Amateur" zuen izenburua, eta parte hartzeko baldintzak zetozen, baita derrigorrezko kantuen izenak ere. Zarzuela batzuen zatiak. Izena eman eta prestatzen hasi zen. Gramofono zahar bat eskuratu eta handik entzuten zituen zarzuela zatiak. Haren inguruan bizi zirenak, entzunaren entzunez, ikasi eta haiek kantatzen aritzen omen ziren bazter guztietan, eta berak ezin ikasi... *Nire asto belarrixok, onak entzuteko, baiña gogorrak itsasteko.*



Joan Jose Arrizabalaga

Aita Emilianorengana jo behar, ba, zerbait ikastekotan. A. Emiliano pianoan eta bera alboan jo eta su. *Zartzuelok astintzen genduzan bai.* Kantuaren harian barre-algara egin behar zen goitik behera: *"ja-ja, ja, ja!... Neuk beintzet eziñ, ezelan bez, eziñ ba".*

- Aitxe Emiliano, *au, ja, ja, ja, ja... au eziñ dot egiñ ondo...*

- Ez estutu, *Juan Joxe, ori "publikuek" egingo dau ederto...!*



*Alan izen be. Baiña... zer? Nire lotsak... kanpora betiko!*

Azken kontutxoak Urkiza Txakartegi familiarekin izandakoak dira. Etxe-etxeko zen familia horretan. Izan ere, Julen Urkiza Vienan ikasten ari zen karmeldar gaztearen familia zen. Jesus Mari Urkiza eta Ana Ibaibarriagaren ezkontza eguna. Julen, esan dugunez, Vienan zen eta oraindik apaiztu gabe... Beraz, lantxo hau sinatzen duenari deitu zioten ezkontza bedeinkatzera. Aita Emiliano eta biok joan ginen, hura organista eta ni meza eman eta Elizaren izenean ezkontza bedeinkatzera. Jose Aginaga eta Jesusa Gezuraga senar-emazteekin bildu



ginen hauen etxe aurrean. Autoan sartzean, honela esan zuen A. Emilianok: "Hemen goaz meza-emailea eta organo-jolea; hortik aurrerakoa edonork egiteko modukoa izango da". Umoretsu eta pozik zegoen. Ondarroan, haien etxera iristean, igogailua hartu genuen; alde batetik, igogailuaren hutsunean, hormaren ertza ikusten zen, abiadura bizian balebil bezala: "Hori bajoiak" esan zidan, barrurantz barre egiten zuela...

Elizkizuna amaitu ondoren, Debarantz jo genuen, han baitzen eztei-bazkaria. Bazkalondo alaia, honelakoetan ohi denez. Musika isiltzean, ondarrutarrak kantari hasi ziren gogotsu eta amaieran, “Boga-boga” kantatu behar. A. Emiliano erdian kantua zuzentzen eta haren inguruan taldetxo bat kantuan. “Simeon Txikixe” sartu zen tartean eta, A. Emiliano besoaz baztertuz, bera jarri zen konpasa, orkestrako zuzendari ospetsuak bezala, bizi-bizi markatuz. “Boga-boga” bere kantua zen, kontizu, eta ez zion beste inori utzi nahi, musikari handia izan arren...

Gure eskoriatzar euskaltzale eta musikariaren giza zertzeladaxo batzuk bildu nahi izan dizkizut, giro serio eta bekozko-dun honetan irribarre egiteko aukera izan dezazun.

*Luis Baraiazarra*